

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Donibane Garazi



Aurkibidea

Udalerria: Donibane Garazi

Sarrera



Nafarroa Behereko hiriburua da, Donejakue Bidean kokatua. Errobi ibaiak zeharkatzen du. Alde Zaharra Emobia erreka eskualdean hasi zen, Lauribar iparraldeko muga izanik. Eskualdean Zitadela eta ezker aldean Uganga edo Urgane auzoak ditu. Zitadelatik gertu Saint-Jacques auzoa dago, ezker aldean Saint-Michel dituen. Udalerri hauek ditu mugakide: iparraldean, Izpura; ekialdean, Donazarre eta Zaro; hegoaldean, Eihalarre; eta, mendebaldean, Uharte Garazi. 1889an trenbidea Donibane Garazira heldu bazuen ere, XIX. eta XX. mendeetan hiriburua biztanleria ez ezik garrantzi politikoa ere galtzen ari da. Ekonomia jardura nagusiak nekazaritza, abeltzaintza eta zerbitzuak dira. Behe-nafarrera da garaztarren berezko euskalkia, zehazki ekialdeko aldaerakoa.

- **Biztanleak:** 1.613
- **Euskaldunak:** %8,38

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **2**
- Zintak: **2**
- Pasarteak: **3**
- Transkribatutakoak: **3**
- Audioak: **0**
- Bideoak: **0**

Proiektuak

- Rudolf Trebitsch-en euskal grabazioak (1913)

Hizlariak

Battiste Alamon (1879)

1879ko uztailaren 22an sortu zen Baptiste ALAMON Donibane Garaziko Merkatu plazako Casenave etxean. Aita Iruñean sorturiko merkataria zen. Ama, berriz, Landibarre udalerriko Behaune herrikoa zen. 1909ko uztailaren 31n, Marie LOYATO anderearekin ezkondu zen. 1913. urtean Rudolf Trebitsch etnografo austriarrak jasotako grabaketa da honakoa. 34 urte zituen grabaketa egin zitzaionean. Notarioa zen. Euskalkia: ekialdeko behe-nafarrera.

- Diskoaren erreferentzia: 2.192

Jean Baptiste Landaburu (1874)

Jean-Baptiste LANDABOURE Donibane Garazin sortu zen 1874ko irailaren 1ean, Uharteko karrikan zen Heigorri etxean. Aita anhauztar saltzailea zen; ama, aldiz, Izurako jostuna. 1913. urtean Rudolf Trebitsch etnografo austriarrak jasotako grabaketa da honakoa. 39 urte zituen grabaketa egin zitzaionean. Botikaria zen. Euskalkia: ekialdeko behe-nafarrera.

- Diskoaren erreferentzia: 2.191

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

1. Aisia

1.1. Donapaleuko pilota-partida izugarria

- **Hizlaria(k)**: Landaburu, Jean Baptiste
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Trebitsch, Rudolf
- **Erref**: DGA-001/001
- **Iraupena**: 0:01:00. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:01:00
- **Gaia(k)**:
Aisia » Kirola » Pilota
- **Laburpena**: Donapaleuko herrian izandako pilota-partida bat kontatzen du. 50 urte lehenago bost lapurtar bost baxenabartarren kontra aritu ziren. Bataila izugarria izan zela dio. 40-50 kilometrotara bizi zen jendea oinez hurbil zen baxenabartarrek irabazitako partida ikustera. Mende hartan ez omen zen horrenbeste jende batu partida baterako.

Transkripzioa

Diela berroita hamar urte pilota partidaat errabotian izantzen ahatziko eztena, Donapaleuko herrian, bost lapurtar hobeena bost baxenaartarren kontra: bataila izantzen izigarria; partida hasiik goizeko hamar oonetan, hamekara joko berdinduik eguerditan berriz lothu zien hiru oonetan. Atsa jintzenian oono etzen akaatia, jujiak bilduik berriz hitz artu zien bihaamun goizeko eta azkenian lapurtarrek benzitu ziuzten baxenaartarrak. Mende hartan ez omen dute ikusi hainbeste jende partida'atian. Bazien berroi, berroita hamar kilometretaik jinik hunez partida horren ikusteat.

2. Ohiturak eta bizimodua

2.1. Istiluak gendarmekin

- **Hizlaria(k):** Landaburu, Jean Baptiste
- **Elkarrizketatzailea(k):** Trebitsch, Rudolf
- **Erref:** DGA-001/002
- **Iraupena:** 0:01:02. **Hasi:** 00:01:00. **Bukatu:** 00:02:02
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
Lanbideak » Polizia
- **Laburpena:** 1848. urtean Donibane Garaziko merkatuan gendarmek bi desertore atxilo hartzera joandakoak sortutako istiluak kontatzen ditu. Jende pilo batek haiek askatzea eskatzen zuen eta laborariak euren makilak astintzen hasi ziren.

Transkripzioa

Mila zortzi ehun eta berroita zortzian izantzen Donianeko merkatan nahasmendu haundi bat. Bi jandarmek arrastatu ziuzten bi desertur jatsiarrak. Jandarmek altxatzen ziuztelaik, Loilakatek oiho intzien: "enekin, gizonak! gue adiskidiak altxatzen tiuzte. Guazen launtzeat!". Ordian berian merkhatu guzia altxatu zen, Loilakat aintzinian bere makila eskian, hausten ziuztela bidian hatzeman guztiak. Azkenian Michel Renaud gure zenaturra bere xarpa soinian athea zen plazaat eta oro eziazi. Bena ondoko egunak hitsak izantzien Loilakatendako; legiak azken hitza ukantzien, Loilakaten etxaldia saldukan miserian hiltzen gue gizona.

2.2. Ehiztarien txabolan botila hustutzero sartzen zen gizona

- **Hizlaria(k):** Alamon, Battiste
- **Elkarrizketatzailea(k):** Trebitsch, Rudolf
- **Erref:** DGA-002/001
- **Iraupena:** 0:01:38. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:01:38
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- **Laburpena:** Hitzunak bizitako istorio bat kontatzen du. Ehiztari batzuk usoak harrapatzen zeuden bitartean, gizon zahar bat beraien ehiza-txabolara sartzen zen beti botiletako azken tantak edatera. Gizon zaharrak ez zuenez ohitura hori aldatzeko asmorik, ehiztariak botila bat

laxantez betetzea erabaki zuten. Handik gutxira, gizon zaharra txabolaren zoruan etzanda agertu zen, minaren minez.

Transkripzioa

Zaroko herrian iten dut urzo ihizia. Eztakit ikusi duzunez ihizi hori nola iten den. Iten badaazu aurtengo azaruan ikhustea jiteko plazerra, seur gustatuko zira. Horra behin zer gerthatu zitzaun. Gure ihiziko apheguari hurran bizi zen gizon zahar bat, zartain zaharra bezain gormanta. Eta arrats guziez gu aphegutik jalgi ta berehala juaitentzen gure ihizi-lekhurat ikusteko zer utzi ginien jateko hun zenik. Zonbeit aldi uzten ginien soberatzen zitzaun jateko edo edateko zerbait, eta bihamunian falta hatxemaiten gintien. Okhaztatuik gizon xaharrain eitatiaz, hitzartu ginen behar giniela ederki harrapatu. Arrats batez, etxeat abiatzen gira, eta bidian hatzemaiten duu gure gizona. Elheka hasten gira, eta erraiten daut: "Hou Battitta! Deus ee hunik utzi daaxia hor enetako?". "Ba gizona, ba! izan behar hor ano xahar undar bat". Eskiak emanik, uzten dut xaharra. Bihamunian Zaro guzia airian zen. Gizon gaixua heiagoraka ai zanik gau guzia uste zuten hiltzen zela. Izigarriko purga'at guk flaskuan utzia edan zien. Gaixo gizona! Eta sekulakotz utzi zien gure undarren biltzia. Agian kunkurtuko hiz orruaz! Debriak eremain ahal hu Arradoiko kaskuari goiti! Leher eta zapart inen ahal duk!

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2025-11-24

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com